



## **AKORDIORIK GABE LAN HITZARMENEN NEGOZIAZIO MAHAIAN**

EAEko Ikastoletako lan hitzarmeneko mahaiak hainbat bilera egin ditu eta , oraindik ere, ez da inolako akordiorik lortu.

Azkeneko bileretako batean LAB sindikatuak akordio batera iristeko proposamena aurkeztu zuen . Proposamenaren ildo nagusiak hauexek dira dira

**Indarraldia:** 2010-2014

### **Soldata:**

- ✓ 2009ko lan sarien taulen erreferentzia mantendu nahitu
- ✓ 2011ko galera ekonomikoa (2010eko akordioaren terminoetan) 2015etik aurrea kitatu.(Beharrezko da gogoratzea akordioan 2011ko murrizketak langileek beregain onartu beharko zituztela eta etorkizuneko negoziaketetan adostuko litzatekeela nola konpentsatu, beti ere finantzaketa publikorik balego. )
- ✓ 2012koa, 2014ko abendurako kitatzeko konpromisoa
- ✓ 2013 eta 2014ko galera ekonomikoa kitatzeko zuen eskeman oinarrituz, urtez urteko soldata igoeraren "dedikazio eredu" mantenduz, murriztutako oinarritzko soldatan %0,9 gehikuntza zorraren kitatze aldera, beti ere 2009 ko lan sarien taulen erreferentzia izanik
- ✓ %0,9ko gehikuntza galera ekonomiko guztia kitatu ez litzatekeenez, faltako dena 2015tik aurrera akordiorako konpromisoarekin.

Horiekin batera lan hitzarmenetik irteteko klausularen inguruko proposamena egiten dute eta Hezkuntza sailari ere interpelazioa egiten diote ikastoletako finantziario eredu berria ekarri beharko lukeen Hezkuntza Lege berri bat sortze aldera.

Proposamena aztertuko dugu eta, aurrerago, STEE-EILASek bere balorazioa jakinaraziko dizue



<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>